

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Indarrak batuz.
Mendeku Itxua.
Ortots.
Iraupena: 61'44".
8 euro.

Euskal Herriko kaleetan sustraitutako heavya

ORTOTS Gipuzkoako ekimen independenteari esker ezagutu ditugu Usurbilgo laukoteak kaleratutako lanak; honako hau bigarrena. Gazte hauek ondo dakite zer nahi duten eta iraganeko Euskal Herriko beste talde batzuk gogora ekarri arren, ziurtasunez egiten dute aurrera. Oso ondo landutako heavya da, melodia handikoa, askotan erritmo bizi-bizia hartzen duena eta tarteka speed metal delakoarengandik

oso hurbil dagoena, baita thrashetik ere. Bestalde, topikoak topiko balada bat ere badute. Beste guztiaren artean, gitarra melodiak nabarmenduko nituzke, irudimen handikoak direlako eta rock-and-roll zein rock urbanoaren marrazkiak ere egiten dituztelako. Hitzei dagokionez, oso kritikoak dira eta aurpegira jaurtitzen dizute torturaren, eskuinekoen eta errauskailuak egin nahi dituztenenganako duten amorrua.

Mendeku Itxua

«Musikaren mundua zabala da, eta ez duzu burua itxi behar, ez talde, ez estiloetara»

“Izan daitezen aske gure kantuek zuengana heldu arte”. Bitartekariak soberan daude?

Ez, bitartekariak beharrezkoak dira produkzio eta banaketa onak egiteko, arazoa musikaren edo kanten aurretik interesak eta diru gosea hartzen dituztenengan dago: hainbat diskoetxe, SGAE eta abarren iruzurra begi bistan dago. Guk gure kantuek kontsumo librerako plazaratzen ditugu, gure nahia, ametsa, jendearengana heltzea delako, ez gehiago ez gutxiago.

Mendekuak itsuak izan ohi dira edo planifikatutakoak? Eta zein izango da zuen mendekua?

Denetik egon ohi da, baina beti du itsu puntu bat, kar, kar, kar! Gurea jotzen dugun edonon kontzerturik onenak ematen saiatzea izango da, nahi duenak eta nahi ez duenak ere entzun gaitzan! Belarriak zulatzeraino!

Heavy taldeen artean ohikoa ez bada ere, zuek errealitate gordinak ateratzen dituzue azalera...

Abestiak egiterakoan, bizi duzuenak bideratzen zaitu, eta inguruko arazo eta kezkek plazaratzen ditugu.



Musika beti izan da ideiak zabaltzeko bide eraginkorra, ezta?

Rock-and-roll eta rock urbanoaren ukituak daukate gitarren melodiak...

Musika maite dugu, eta ez dugu beste estiloak ukitzeko beldurrik, atsegin badugu, ez dago arazorik, rocka, punka edo beste edozer dela ere.

Itzalek asko kezkatzen zaituzte?

Ez gehiegi, gautxoriak gara... kar, kar. Denok dugu itzal baten beharra, babesten gaituena. Bestalde, maitasunaren inguruko kezketan,

itzalik beltzenaren beldur izaten gara beti, nork ez du beldur hori sentitu?

Su Ta Gar Biblia dira zuentzat, ezta?

Su Ta Gar dudarik gabe, beste talde askoren artean gure gaztaroak argitu dituen euskal taldea izan da, erreferente bat. Hamabost urte edo genituela bete-bete harrapatu gintuen beraien musikaren indarrak. Dena den, ez dago Bibliarik, musikaren mundua zabala da eta ez duzu burua itxi behar, ez talde, ez estiloetara. ■